

B

BARREN



‘Gerrako Umeen’ memoria gerturatz

Carmen Kilner, Ingalaterrako elgoibartarra




ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

KOLTXOI-DENDA TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

%10eko DESKONTUA



produktu
berriaren
aurkezpenagatik



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

www.textillagunak.com



Ongi etorri

Ongi etorri, Korrika, euskararen herrira; bi urtean behin gurera etortzen zaren lasterketa erraldoia, koloretsua eta bizia zeharkatuko duzulako hegoaldetik iparraldera eta mendebaldetik ekialdera zure mezu mugagabe eta euskalduna. Kolore biziz tintatuko dituzulako gure kale, errepide eta txoko guztiak; zipriztinduko dituzulako hormak eta eraikinak; zure oihartzunez gure belarriak eta barrenak beteko dituzulako.

Ongi etorri euskararen mundura hurbildu edo hurbilduko zaretenak.

Ongi etorri, Rami, Tereixa, Jesus Mari eta Mixele, euskaraz bizi nahi dugunon herrira. Zorionak, erakutsi diguzuen gizatasun eta euskararekiko maitasunagatik, bidea markatu duzelako, noranzkoa irakatsi duzelako; sentitzen duguna ikuskor bihurtzeagatik eta ikusitakoa sentikor egiteagatik.

Ongi etorri lasterketa honetan parte hartzen duzuen guztiok: gazte eta nagusi, gizon eta emakume, zuen berotasuna eta animoak emanaz; urratsez urrats eta pausoz pauso, gauzez eta egunez posible egiten duzelako lekukoa helmugara iristea. Ideiak eta zatiketak gaindituz, eskuinaren eta ezkeraren gainetik, batzea lortzen dugulako mezu bakarrean, euskararenean, hain zuzen.

Ongi etorri, halaber, korrikalari guztiok gure kaleetan, etxeetan, bulegoetan, eskoletan, enpresetan, ospitaleetan, erakundeetan, dendetan, elizetan, ezkontzetan, hiletetan, futbol zelaietan, banketxeetan, aldizkarietan, telebistetan, irratietan, familietan, kuadriletan, zerbitzuetan ... egunero jokatzen den lasterketara.

Ongi etorri!

Alfonso Eugi



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibararra.com

**"Ideiak eta zatiketak gaindituz,
eskuinaren eta ezkeraren gainetik, batzea lortzen dugu"**

www.elgoiBARREN.net

Aste Santuko oporrak hartu ditugu!

Apirilaren 14an bueltatuko gara.



MARK STUTTER

BIKOIZTAILEA

**“Hasieran
oso arraroa
egiten zitzaidan
aireportuan nire
ahotsa entzutea”**

Mark Stutter Londresen jaio zen, baina gaur egun Elgoibar eta Donostia artean bizi da. Ama bergararra eta aita ingelesa ditu, eta zazpi urterekin etorri zen hona bizi izatera. Txikitan amak euskaraz hitz egiten zion, eta ulertzeko beste badaki; baina hitz egiteko zailtasunak ditu. Hala ere, bikoizketa lanak euskaraz egin izan ditu. Aireportuetako deiak, umeentzako ipuinak... denetik bikoiztu du, baina gehien dokumentalei ahotsa jartzea gustatzen zaiola dio Stutterrek.

Elgoibarren bizi izan zara, baina ez zara bertakoa.

Halaxe da, bai. Londresen jaio nintzen: ama bergararra zen eta aita ingelesa. Gaur egun aita Uberan bizi da, Elgeta alboko auzo batean, eta ni orain Donostian bizi naiz.

Elgoibar eta Donostia artean bizi zara...

Ingelesko akademia zabaldu genuen 1988an Elgoibarren, eta 2000. urtean Donostian ere zabaldu genuen akademia. Ordutik, bi herrietan egiten dut lana, eta batera eta bestera ibiltzen naiz.

**“Bikoizketa lanetan
pertsonaia barruan
asko sartzea
eskatzen dizute;
bizitza ematea”**

Londreskoa izanda, gaur egun joatan zara zure jaioterrira?

Lanagatik askotan joan behar izaten dut. Cambrige Unibertsitatearentzat lan egiten dut, eta batzarretara-eta joan behar izaten dut. Batez ere lanagatik joaten naiz, ez arrazoi familiarrengatik

Ingelesa zara, baina euskaraz hitz egiten badakizu?

Euskara ulertzen dut, eta alabari euskaraz hitz egiten saiatzen naiz. Bikoizketak euskaraz egin izan ditut, baina kosta egiten zait.

Zein da zure ama hizkuntza?

Ingelesa da nire ama hizkuntza, eta gero gaztelera. Umetan, Ingalaterran bizi gineanean amak euskaraz hitz egiten zidan. Baina zazpi urte nituela etorri ginen: Francoren garaia zen, ez zen euskaraz hitz egiten, eta gaztelera hitz egiten nuen. Eta gaztelera hitz egiten jarraitzen dut.

Euskara, beraz, zaila dela esango zenuke?

Daukadan euskara mailarekin bost urte inguruko umeekin moldatzen naiz, adibidez, baina alabak hamabi ditu eta zailagoa egiten zait. Baina nahi izatea ahal izatea da.

Gaztelera hitz egiten duen batentzat, euskara ala ingelesa zailagoa?

Euskara, dudarik gabe. Gramatika aldetik gaztelera eta ingelesa oso antzekoak dira; euskaraz aditza atzean joaten da, eta esaldia esan aurretik, nik neuk asko pentsatu behar izaten dut. Itzultzaileak diren lagunak ere badauzkat, eta euskarara itzultzea izugarri kostatzen zaie. Baina hori arrazionalizatuz gero; ume batentzat hizkuntza guztiek zailtasun bera dute.

Bikoizketa lanak egiten dituzu. Zelan hasi zinen lan horretan?

80ko hamarkadan, Lourdesera joan nintzen andazain. Gurasoak joaten ziren, eta eurekin joan nintzen. Andazain lanetan ari nintzela, hamazazpi urte inguru nituela, zinema munduan lan egiten zituzten donostiarrak ezagutu nituen. Euskal Herriaren Historiaren ingelesezko bertsioa egiteko norbait behar zuten. Felipe Barandiaranek egin zuen euskaraz, eta gaztelera egiteko norbait nahi zuten. Kastingera joateko deitu zidaten. Joan nintzen, eta hartu egin ninduten. Halaxe hasi nintzen lan horietan. Beraz, esan daiteke kasu hartan amabirgina agertu zitzaidala Lourdesen! [Barreak].

Ordutik bikoizketa lan mordo bat egin dituzu...

Aireportuetan, tren estazioetan, dokumentaletan, pelikuletan... egin izan ditut lokuzio lanak. Umeentzako, esaterako, ipuinak irakurri izan ditut, baina ingelesez batez ere. Baita ikastetxeetako metodoak ere: umeek dituzten diska asko neuk irakurtzen ditut.

Olentzeroren filmeko gaiztoari ere ahotsa jarri berri diozu.

Ingalaterratik Olentzerori opariak osteratorren pertsonaia gaizto bat da. Zazpi edo zortzi ordu egin nituen bikoizketa lanak egiten. Eta ingelesa zen beste bigarren pertsonaia bat ere bikoiztu nuen.

Zer behar da bikoizketa lanak egiteko?

Ahotsa proiektatzen jakitea eskatzen dute, eta lokuzioko ikastaroren bat egina izatea. Donostian horrelako asko egiten

dira, eta bat egin nuen nik. Baina, batez ere, pertsonaiaren barruan asko sartzea eskatzen dizute; bizitza ematea pertsonaia horri. Behin hori lortuta, hurrengo fasea pasatzen zara: esaterako, film horretan bikoizketa lanak egin baino egun pare bat lehenago, *Goenkale* telesailan agertu nintzen paper txiki batean. Ingeles bat antzetzu behar nuen; euskaraz berba egiten ez zuen pertsonaia bat. *Goenkale*-ko aktore asko bikoizten lan egindakoak dira; pixkanaka telebistara pasa diren aktoreak. Hasierako pausoak eman nituen Felipe Barandiaranekin eman nituen, eta, bera ere, *Goenkale* telesailako aktorea da gaur egun.

Lanagatik asko bidaiatzen duzu, ez zaizu arraroa egiten aireportura joan eta zure ahotsa entzutea?

Hasieran oso arraroa egiten zitzaidan, eta orain, lotsa puntua ere sentitzen dut hegazkina hartzera joan eta nire ahotsa entzuten dudanean. Espainiako aireportu guztietan entzuten da gainera.

**“Euskaraz aditza
esaldi amaieran
doa, eta hitz egin
aurretik asko
pentsatu behar dut”**

Zein bikoizketa lan mota gustatzen zaizu gehien?

Gehien dokumentalen narrazioak gustatzen zaizkit. Eusko Jaurlaritzarentzat turismo kanpainak egin ditut, adibidez; eta horrelako lanak gustatzen zaizkit gehien. Eduki historikoa duten narrazioak gustatzen zaizkit.

AZERIEN IKUSKIZUNA



Argia dantzari taldeak 'Axeri boda' ikuskizuna eskainiko du gaur Herriko Antzokian, Elgoibarko Haritz, Eibar-ko Kezka eta Iruñeko Duguna taldeekin elkarlanean. Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako ikuskizunak mito zahar batean oinarrituta hartu du gorpuztak.

Oier Narbaiza

Axeri Boda Herriko Antzokian ikusteko aukera izango da gaur, 22:00etatik aurrera. Haritz dantza taldeak aspaldiko haremana du Juan Antonio Urbeltz koreografoarekin eta Argia dantza taldearekin, eta elkarlan horrek emandako beste fruitu bat da 'Axeri Boda'. Izan ere, 1988tik hainbat ikuskizunetan parte hartu dute Haritzeko dantzariak, *Alakiketan*-en, *Kondharian*-en eta *Pas de Basque*-n besteak beste.

Guztira berrogei dantzarik eta hamar musikarik parte hartzen dute ikuskizunean, tartean Haritzeko Unai Lizarralde eta Jokin Salegi elgoibartarrak eta Irati Kortabitarte eibartarrak. Kezkako Ainhoa Lendinez elgoibartarre ere parte hartzen du.

Antzinako euskaldunen mito batean du oinarria ikuskizunak. HaRen arabera, euria eta eguzkia egiten zuenean, ortzadarra sortzeko baldintza onenak gertatzean, azeriak ezkondu egiten ziren.

Japoniako mitoa

Dena den, mito hori Euskal Herrian ez ezik Japonian ere badela jakin zuen, Juan Antonio Urbeltzek, Akira Kurosawaren *Dreams (Ametsak)* filman. Datu horri tiraka ekin zion ikuskizuna prestatzeari.

Antzinako mito batean oinarritutako dantza da 'Axeri Boda'

Hori dela eta, euskal tradizioko hainbat azeri-dantza batu eta berregin zituen, ikuskizun honetarako.

Ikuskizunaren sortzaile eta zuzendariak, Juan Antonio Urbeltzek, prentsaurrekoan azaldu zituen ikuskizunaren sustraia, mamia eta nondik-norakoak: "Azeria ez da denoi burura datorkigun animalia, eltxoa baizik. Metafora bat da, eltxoa deabrua baita, eta deabrua ezin da izendatu, gorpuztu egiten baita hala eginez gero".

lazko urrian izan zen *Axeri Boda* ikuskizunaren estreinaldia Arriaga antzokian, eta oso kritika onak jaso zituen. Urbeltz bera ere oso pozik dago emaitzarekin. Izan ere, ikuskizuna egin ahala, gauzak bere lekura datozela uste du. "Ni bakarrik ez, talde guztia gaude pozik. Dantza egiteko oso modu berezia da. Benetan polita. Eta posible da mundu amateur batekin", Urbeltzen esanetan.

Dantza tradizionalako ikuskizunak sarri ikusi daitezke Elgoibarren, baina horrelako mailakorik gutxitan: bost urtetik behin edo. Horregatik gaur gaueko ikuskizunera hurbiltzeko deia egin du Jon Lizarralde dantzariak.



Juan Antonio Urbeltz

Antropologo eta koreografoa

“Berreskuratzeko aukera dute gure ohitura zaharrek eta dantzek”

Zer ikusiko dugu Herriko Antzokian?

Nik uste dut gure ohitura zaharrek eta dantzek berreskuratzeko aukera dutela, nortasuna galdu gabe. Nortasunarena da arazo handienetakoa: normalean sartzen dugu eskua, gauzak asko aldatu eta askak hutsak egiten ditugu. Zergatik? Dantza zaharrek euren estiloa dute. Ohitura zaharretan eta usadioetan sartu beharra dago. Horrela konprenitzen dugu ondo. Bestela, estetikasuna baino ez badugu sartzen, tronpatu egiten gara. Hori ikusi dut, Euskal Herrian edo Aragoian.

Hortaz, dantza tradizionala ez da mugitza bakarrik, esanahia dauka atzean...

Horrela da. Ez da imitazio hutsa egitea, bestela karikaturak egingo genituzke.

Japonian ere azerien mitoa aurkitu zenuen. Kasualitatea ote?

Ez da kasualitatea. Esaera oso zaharra da. Lehenago bazegoen espiritualitate eta pentsaera oso bat Eurasia guztian. Japonian gaur egun gorde dituzte esaera zahar batzuk, eta berez txamanismoarekin euren erlijioaren sinismen zaharrak. Baina hemen ez, galduta daude.

Zer adierazten du azeriak?

Eltxoaren metafora da. Metafora batzuk asmatu zituzten, aipatu ezina izendatzeko. “Azeri asko dago hemen”, esaten zen. Ezin “eltxoak” esan, bestela agertu egingo zirelako. Une batean hitz batzuk deabrua izendatzeko ziren. Orain ere tragedia izango liizateke aire egokitutik eltxoak sartuko balira edizio *inteligente* batean.

“Oso ikuskizun polita da. Nik, behintzat, oso gustuko dut, eta dantzarien maila oso ona da. Eguneroko lana oso ondo betetzen dela ikusten da. Ea antzokia betetzen den, hori edozein dantzari zein antzezlerentzat beti izaten da-eta hobea”, adierazi du.

Ekarpena

Urbeltzekin lan egitea oso aberasgarria dela uste du Jon Lizarralde Haritz dantza taldeko zuzendariak. “Horrela Folklore Jaialdia edo beste edozein ekintza egiten dugunean oinarri handia lortzen dugu”, dio. “Askotan dantzak ikasten ditugu batek esanda edo besteak. Baina askotan falta zaizkigu nondik norakoak: zalantzaren bat dagoenean Juan Antonio Urbeltzengana joan eta berak esaten digu gauza bakoitza zergatik den”, azaldu du. Taldeko dantza maixuekin urteetan jardun du Iparraldean erakusten.

Horrekin lotuta, ezpata dantzari buruzko ikerketa lan bat du Haritz dantzari taldeak es-

ku artean. Koldo Lizarralde aspaldi esan zien artxiboetan agertzen direla hainbat datu. Urbeltzen laguntzari esker, urrirako prest izan dezakete dantza. Lehen Kofradia bazegoen Errosario kalean eta datu hori kontuan hartuta, kale horretako jaietan egitea egokia dela uste dute. Gainera, urtero egin daiteke, jaietan soka-dantzarekin egiten duten erara. Urbeltzen aholkularitzak janzkera arloan edota esanahia ulertzeko balio izan die.

Haritz taldeak 1988tik dihardu Urbeltzekin eta Argia taldearekin elkarlanean

ELKARLANA

- Haritz 1988an hasi zen Argia taldearekin elkarlanean. Orduan Lourdes Odriozola eta Jose Inazio Sarasua zeuden zuzendari.
- Argia taldeak bere dantzariak dauzka, Donostia ingurukoak-eta. Dena den, Eibarko Kezka dantza taldearekin eta Elgoibarko Haritzekin elkarlan sendoa du.
- Elkarlaneko Hasierako ikuskizunak ikaragarri handiak ziren. 200 dantzari parte hartzen zuten, leku askotakoak.
- 1988tik ikuskizun guztietan parte hartu du Haritz dantzari taldeak: *Zortziko-n*, *Alakiketan-en*, *Kondharian-en* eta *Pas de Basque-n* eta *Axeri Boda-n*.
- Leku mordo batean eta eskentoki garrantzitsuetan dantza egin dute Haritz dantzari taldekoek ikuskizunon bidez: Paris, Estatu Batuak, Bilboko Arriaga, Zugarramurdiko kobazuloa...

AMATEURRAK

- Goi mailako ikuskizuna prestatu du Urbeltzek, dantzari amateurrekin. Bere iritziz, garrantzitsua da amateur izaera, etimologikoki maitasun kontzeptuarekin lotuta dagoelako.

EGITARAUA

- Axerien eztei dantza.
- Axeri dantza.
- Axerien Branlea, Bourréa eta Kontradantzak.
- Makil dantzak.
- Mairuen gezi dantza.
- Axeri dantzen brokelak.
- Axeri jokoa.
- Habanera.
- Axeri gorrien azken borrokaldia.
- Urso zuria.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Bizkotxerixako obrak

Jose Maria Linazasoro eraikinaren (urte askuan eskola eta azkenenguetan bizkotxerixa izan dana) kontua ekarri nahi neuke hona. Aitortzen det, ez dakitt bertan egin bihar daben haur eskolako proiektuaren nondik norakorik. Hala ere, azken aste honetan bertan gertatutakuak zer pentsatua eman dia. Egun batetik bestera, sarrerako ate berdian eta inguratzen zaban harrizko horma bota dituzte: eskabadora sartzeko. Horrekin batera, aurreko patixuan zauden arbola zahar darna moztu dituzte: urte asko zauzken morerak, Mendaron seguruenara asko egongo ez dan arbola klasia. Haur eskola egittia garrantzitsua danikan ez det dudan jarriko. Baina ezin al dira gauzak kuriosago egin? Ezin al da sentsibilitate pixka bat eskatu gauza hauek egitteko orduan?

Bestelako esanahixa badu ere, Santa Anako baselizaren inguruetan gertatutakua ere hor dago. Luezi haundi batek kalte haundixak eragin ditu irisbide nagusian. Badira urte batzuk era honetako gertaerak gertatzen dirala. Orain urte gutxi beste luezi garrantzitsu bat izan zan, kasu haretan, erromerixa egiten dan aldeko petrila ixa bota zabana eta hormigoiz hartu bihar izan zan azpikalde guztia. Gehixago ere izan dira, txikixaguak, harrezkero. Arazua aztertu eta soluzio egokirik bizkor ematen ez bajako Santa Anarik gabe geditu leike Mendaro urte gutxiren buruan.

Lehen ere Mendaron eraikin enblematiko asko desagerrarazi dala uste det. Eta desagerrarazi esaten det, ez diralako luezixek eraginda desagertu, guk hala nahi

izan degulako baizik: zubi zaharra, irin fabrika, monjen konbentua, hainbat basarri, hainbat horma eta bide zahar... Gero eta zailagua da, gurian, lehengo Mendaroko arraztuak topatzia. 1990 urte ingurutik hona Mendaro zihero transformatu da (argazkixak ikusi besterik ez dago). Gauza onak egin diranik ezingo det ukatu. Baina gauza asko oker egin dala ere, neri behintzat, begibistakoa suertatzen jata. Eta gaizki egindako gauza horren artian nagusixa, lehenguagatik erakutsi degun errespeto faltia dala esango neuke. Bota eta berrixa egittia izan da hamen balio izan dabana. Gendukana kontserbatu eta aprobetxatu biharrian. Kanpora jutian konturatzen da bat parte zaharren indarraz, lehengo gauzen indarraz. Eta zaila da Mendaron, gaur, indar hori topatzia. Gauza soltiak badaude, baina ez geure lehenari eusteko esfortzu kontziente eta determinazio iraunkor batek lekarkian osotasunik. Horixe botatzen det faltan.

Enetz Ezenarro

20 urte dispertsioan abian jarri zutela

Martxoan ere joan zaigu. Beste hilabete bat non euskal preso politikoak urrundu dituzten, beste hilabete bat non bizi osorako zigorra aplikatu duten (azken astean, hiru kasu), beste hilabete non senideok istripuak pairatu behar izan ditugun eta beste hilabete bat non gure senide eta lagunengun inguruko informazioa maltzurkeriaz manipulatu duten.

Apirila hasi berri da. Hilabete berezia izango da, 20 urte beteko baitira espainiar estatuak sakabanaketa politika abian jarri

zuenetik. PSOEk, PNVren laguntza osoarekin, euskal preso politikoen kolektiboarekin amaitzeko hartutako erabakia zian zen. Ez dute lortu, baina bidean preso eta senide asko gelditu dira. Xantaia amaigabe horrek gure senide eta lagunak pertsona moduan suntsitu nahi ditu. Inguru sozial eta afektibo gabe utzi nahi ditu, baina oker daude. Ez dute lortuko.

Apirilean gure indar guztia erakutsiko dugu. Ekimenak bata bestearen atzean ailegatuko dira. Euskal herri osoko herri eta auzoak elkartasun uholde batez zipzinduko dira. Elkartasuna, oroimena eta duintasuna bidelagun izango ditugu. PSOEk errepresioa eta sakabanaketaren bideari eusten dio. Bizi osorako zigorra aplikatzen dute eta gaixo dauden presoak ere ez dituzte askatzen. Orain, Gasteizko Gobernuak, 2006 urtetik aurrera ematen zituen diru-laguntza urriak kenduko dituztela iragarri berri dute. Limosna kenduko digutela iragarri du Aresen. Ez daukate lotsarik, baina guk ez dugu limosnarik eskatzen. 225.081 euro ez baita ezer guri urtean sakabanaketak sortzen digun gastu erraldoien aurrean. Kasik 15.000.000 euro gastatzen baititugu senide eta lagunak bisitatzeko. Baina, jakin dezatela espetxe politika kriminal hau jarri zutenek, ez dagoela munduan zifrarik gure elkartasunarekin amaituko duenik. Konpromisoari eusten diogu eta gure borondatearen aurrean ez daukate zer eginik.

Beraz, apirilean zehar egongo diren mobilizazio eta ekimen guztietan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Etixerat

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Abel Irizar

Ez da erraza krisi hau ulertzea, Alberto, baina ipuin mexikar hau datorkit gogora:

“Negozio-gizon estatubatuarra Mexikoko kos-

taldeko portu txiki batean zegoen eta

ontzitxo batean arrantzale bat porturatzen ikusi zuen, arrain eder gutxi batzuk zekartzala.

- Zergatik ez dituzu gehiago harrapatu?
- Nire familiari jaten emateko nahikoa daukat.
- Eta zer egiten duzu gainontzeko denboran?
- Berandu esnatzen naiz, ondoren arrantzan egin, gero seme-alabekin jolasten dut, bazkaldu, bikotearekin siesta egin, eta arratsaldean lagunekin gitarra jo eta kantuan aritzen naiz. Eguneko orduak okupatuta ditut.
- Nik lagunduko dizut... Hasteko, denbora gehiago eman behar zenuke arrantzan, eta ondoren itsasontzi handi bat erosi. Gero, irabaziekin itsasontzi gehiago erosi eta flota edukiko zenuke. Bitartekari bati saldu beharrean, zeure kontserba-fabrika muntatu eta prozesu osoa kontrolatuko zenuke, eta gehiago irabazi. New Yorkera joan beharko zenuke enpresa zuzentzera.
- Eta hori guztia zertarako? - arrantzaleak.
- 25 urte barru enpresa burtsan saldu eta aberasteko.
- Eta gero?
- Gero erretiratu eta kostako herri txiki batera joango zinateke, berandura arte lo egin, arrantzan ibili, bilobekin jolastu, bazkaldu, bikotearekin siesta egin, eta arratsaldean lagunekin gitarra jo eta kantuan aritu”.

“Leporaino hipotekatu den langile langabeari loa eta ametsa lapurtu dizkiote”

Geure bizi-ahalmenetik gora gabiltza, bai. Baina kapitalismoak adarra jo digun sententzia daukat. Zerbaitek ez du ondo funtzionatzen, Alberto...



Alberto Agirreazaldegui



Krisia ez da ulertzen Abel, sufritu egiten da. Adituak saiatzen dira esplikatzeko baina krisia jasaten ari denari bost axola nork sortu duen eta nola etorri den. Sufritu ere denek ez dute berdin sufritzen. Batzuk besteak baino ahulagoak dira eta krisiak makalena kolpatzen ditu azkarren. Ondorioz, krisiarekin areagotu egiten dira desberdintasunak.

Bizi-ahalmenetik gora gabiltzala diozu eta ez duzu arrazoi faltarik baina ahulenez ez daukate horretarako ahalmenik. Orain dioskute pobrezian bizi diren kopurua gehitu egin dela gure artean. Nola ez da bada gehituko?

“Zuk zer mantenduko zenuke, lanpostua ala ondoko lankidea?”

Gazteak, etorkinak eta lanposturik gabe gelditzeko arriskua dutenak dira ahulenak. Lana ez denean falta etorkinak ez dira gaizki ikusiak. Gure nagusiak zaintzeko eta beste inork nahi ez dituen lanak egiteko “etorri dira baina, orain, egoera honetan, hori ere zaila dirudi eta besteentzat premiazkoak jotzen ditugun eskubideak ukatzen dizkiegu.

Juan Mari Arregik honako hau zioen orain gutxi Argian: “Krisi eta langabezia egoeratan lankidearekiko errespetua eta elkartzasuna pitzatu egiten dira eta bakoitza bere lanpostua mantentzen saiatzen da ondokoa ahaztuz. Eta are gehiago ondokoa immigrantea bada.”



Zuk zer mantenduko zenuke aukeratu behar bazenu, lanpostua ala ondoko lankidea? Saiatu gaitzen galderari erantzuten.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Espainiako Bankuak adierazi du diru gehiago beharko dela kutxak salbatzeko **Zure aurrezkiak seguru daudela iruditzen zaizu?**



Kaiet Blanco
27 urte, tabernaria

Momentuz bai, ni lasai nago. Denok batera ez bagara diru eske joaten bankuetara ez dut uste arazorik egongo denik. Castilla-La Mancha kutxan gertatu dena entzun ondoren apur bat kezkatzen zara, baina ez dut uste horrenbesteko izango denik.



Jose Luis Guinea
64 urte, armagina

Bai. Bankuko langile batekin egon naiz hizketan orain dela gutxi, eta hark esandakoaren arabera, 100.000 euro zirutatuta daude pertsonako, eta nik behintzat, ez daukat hainbeste diru. Hortik gorako aurrezkiak dituenak, akaso kezkatuta egongo da, baina ni ez.



Ainara Lavado
33 urte, euskara teknikaria

Bai, ez daukat diru askorik, beraz, lasai nago. Krisia dagoela nabaria da, eta kezka badago gizartean, baina bankuak baino lehenago gu geratuko gara dirurik gabe. Orain arte dirua errazegi eman dute bankuek, eta orain diru hori ez da existitzen. Hor dago arazoa.



Manuel Fernandez
57 urte, metalurgilea

Bai. Diru gutxi daukagunok ez daukagu arazorik, ni lasai nago behintzat. Banketxeek aurrera egin behar dute, eta eurek herritarrei eman behar dizkiete aurrera egiteko finantzazio moduak. Enpresek eta herritarrek kredituak behar dituzte.

ESKERTZA

TIBURCIO ARAMBURU ARRILLAGA



2009ko martxoaren 28an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



II. URTEURRENA

RAMON GORRITI AGIRRE



2007ko apirilaren 5ean hil zen, 80 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 4,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





Ermuaranbide kaleko espaloian furgoneta bat egoten da egunero: “Ermuaranbide kaleko bizilagunok gogor egin dugu borroka espaloi berria egiteko, eta azkenean lortu dugu. Hala ere, 8:00ak aldean furgoneta bat egoten da egunero espaloi gainean zamalanak egiten, eta errepidera irten behar izaten dugu. Eskertuko genuke horrelakorik ez gertatzea, bestela, alperrik egin dute oinezkoentzako espaloia. Mila esker”.



Gemma Agirregomezkortak eskerrak eman nahi dizkio Elgoibarko herriari: “Sanlo EKTk eta Xabier Izagirrek emandako jantziak banatu ditugu Peruko umeen artean, eta oso pozik gaude. Mila esker elgoibartar guztioi”.



Zergatik lotu dituzte hormara Santa Klarako parkeko jarlekuak?: “Orain dela pare bat aste Santa Klarako parkeko jarlekuak hormara lotu zituztelako kexatu ziren bizilagun batzuk. Handik gutxira, Hirigintzako arduradunaren aginduz, berriz askatu zituzten, baina orain Santa Klara 30eko bizilagunak kexatu dira, euria egiten duenean jendeak euren portal aurrean jartzen dituelako jarlekuak. Hori horrela izanik, Rikardo Garate Hirigintzako arduradunak esan digu jarlekuak parkean egon behar dutela, eta horregatik lotu dituztela”.



Zuen kexak, galderak edo txatoak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



klinika kortazar

Oftalmologia pediatrikoa

Gidabaimenak eta armabaimenak

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Te. 943 700 700 / 943 203 835

Esmerik asko DEBABA Udai Euskaltegiaren 25. urteurrenko bazkariari etorri zineten guztioi, eta baita, kalean, Bentzaharreko mutiko atalekin eta gurekin batera, kantuan egin zenutenoi ere!



25.
urteurrena

Bulegoa zabalduko du Elgoibarren Lanbide enplegu zerbitzuak astelehenean

Informazioa eta orientabidea jasoko dute bulegora hurbiltzen direnek

Eusko Jurlaritzako Lanbide enplegu zerbitzuak bulegoa zabalduko du astelehenean, apirilak 6, Elgoibarren. Gabriel Krutzelaegi kaleko 8. zenbakian egongo da bulegoa, Babes Ofizialeko etxebizitzan azpiko aldean.

Lana bilatzeko prozesuan herritarrak laguntzea eta orientatzea izango da zerbitzuaren zeregin nagusia. Hortaz, Lanbideren bulegora hurbiltzen direnek informazioa, orientabidea, bitartekaritza, prestakuntza eta enplegurako laguntzak jasoko dituzte. Gainera, lan bila dabilen pertsona bakoitzari berarentzako plan integrala eta personalizatua eskainiko diote.

Elgoibarko bulegoak 150m² izango ditu, eta Eibarren zegoena ordezkatu du. Elgoibarko Udalak 20 urterako laga dio lokaletan Lanbideren erakunde kudeatzaileari.

Langabeziak gora

Langabeziak gora egin du azken bozlan, eta hori konpontzeko helburua



dauka enplegu zerbitzuak. Lanbideren oinarrizko helburua, enplegu betea, egonkorra eta kalitatekoa lortzen laguntzea da, eta horretarako ezinbestekoa da langabetuak lan merkatuan barneratzea.

INEMek argitaratutako datuen arabera, %50 egin du gora langabeziak Elgoibarren 2008an. Urte hasieran 285 langabetu zeuden gure herrian, eta abenduaren 31n 428. Urtebeteko epean 143 elgoibartarrek galdu zuten enplegua.

Abiadura Handiko Trenaren aldeko mozioa onartu du Udalak



Elgoibarko Udalak "Euskal Y"-rekin duen konpromisoa publikoki berretsi zuen martxoaren 26ko osoko bilkuran. Francisco Javier Nuñez PPko zinegotziak Abiadura Handiko trenaren aldeko eta ETaren aurkako mozioa aurkeztu zuen, eta Udalak onartu egin zuen. Mozio horretan AHTa eraikitzeke lanetan ari diren langileen kontrako mehatxuak gaitzesten dira, eta AHTa Euskal Autonomia Erkidegoarentzat ongizate, garapen ekonomiko eta oparotasunaren iturri funtsezkoa


dela nabarmentzen da. PSE-EE eta EAJK aldeko botua eman zioten mozioari, EAK abstentzioaren alde egin zuen eta Aralar izan zen kontra bozkatu zuen alderdi bakarra.

Izaskun Soraluze Aralarreko zinegotziak ezezko botoaren azalpenak eman zituen. Batetik, azpiegitura berria izan arren, ez dituela inondik inora EAEn gaur egun dauden garraio arazoak konpontzen esan zuen, eta proiektuak ekonomia hazkuntza ekarriko duela ere zalantzan jarri zuen. Azkenik, "ETA eta AHTren kontrako jarrera adierazten dugunon artean egiten duzun lotura maltzurra ez dugu inondik inora onartzen", esan zuen zinegotziak.

AHTren kontrako kontzentrazioa

Osoko bilkurak mozioa eztabaidatzen zuen bitartean, Elgoibarko AHT Ez taldeak, bestalde, kontzentrazioa egin zuen Plaza Handian. Hogeita lagun inguru bildu ziren, Abiadura Handiko Trenaren kontrako aldarrikapena egiteko, "Nik ere AHT geldituko dut" lemapean.

Lekua **Padel pista**



Mintxetako kirol gunean egiten ari diren padel pistak estalpea izango du. Hasieran ez zegoen pista estaltzeko asmorik, baina Udaleko arduradunek aldaketak egin dituzte proiektuan, urte guztian inolako arazorik gabe erabili ahal izateko. Lanak hasita daude, eta uda hasierarako amaituta egotea espero dute Udal Kirol Patronatuko arduradunek. Amaro Estructuras enpresa ari da ingurua egokitzen, eta pistak jartzeko az Talpren enpresa arduratuko da. Lan horiek 248.000 euroko kostua edukiko dute.

Berbia **Iruzurra**

Elgoibartar batek 6.000 euro galdu ditu estapanpantxoaren iruzurrarekin. Iruzurgileak 6.000 euroren truke 30.000 emango zizkiola adierazi zion herritarri, dirua markatuta zegoela eta berak aurrekari penalak zeuzkalako ezin zuela erabili esanez. Gainera, diruz beteriko poltsa erakutsi zion. Etxera joan zenean, ordea, egunkari papez beteta aurkitu zuen poltsa. Azken asteotan halako kasuak Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat herritan gertatu direla-eta, Ertzaintzak tentuz ibiltzeko gomendioa egin nahi die herritarrei; jende nagusiari, batez ere.

Irudia **Gazte Eguna**

Debabarreneko Gazte Eguna egin zuten joan zen zapatuan, martxoak 28, Elgoibarren. Eskualdeko 80 gazte inguru bildu ziren "Zu ere lotu independentziara" lemapean, eta hainbat ekitaldi egin zituzten egunean zehar: trikopoteoa, herri bazkaria, jolasak, manifestazioa... Gauean kontzertua eta DJ saioa izan ziren Gazte-egunaren. Antolatzaileek apirilaren 10etik 12ra egingo den Gazte Martxan parte hartzeko deia egin zieten bertaratu ziren guztiei.



1973an jaiotako enpresak

1973an jaio eta Elgoibarko Ikastolan ikasitako enpresak auzi egingo dute datorren maiatzaren 16an. Interesatuak 30 euro sartu behar dituzte apirilaren 30a baino lehen, Gipuzkoako Kutzako kontu korronte zenbaki honetan: 2101 0054 15 0012339156.

Antolatzaileek, bestalde, *Elgoibar1973@gmail.com* helbidera mezu bat bidaltzeko eskatzen diete afarira joango direnei, euren harremanetan jarri ahal izateko.

Lourdesera bidaiak

Gaixoekin erromes bidaiak egingo dute herriko hainbat lagunek Lourdesera maiatzaren 22tik 25era. Bidaiak horretan parte hartzeko interesa dutenek, apirilaren 7ra arte daukate izena emateko epea. Informazio gehiago eskuratzeko 943 741 319 telefonora deitu daiteke.

Trinitateetako azokarako izena emateko epea zabalik

Datorren ekainaren 6an, Elgoibarko Udalak eta Debemen elkar-teak antolatuta Trinitate jaietako azoka egingo da. Debemen elkar-tearen arabera, Elgoibarko base-ritar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera. Horretarako, Debemenera deitu beharko da (943 744 067) datorren apirilaren 30a baino lehenago.

Korrikaren azken jairako autobusak Eibartik

Apirilaren 5ean amaituko da Korrikaren aurten edizioa Gas-teizen, eta AEK euskaltegiak autobus zerbitzu berezia jarri du Pesa garraio enpresarekin elkarlanean. Autobusa 8:45ean irtengo da Eibarko Hotel Arrate aurretik, eta itzulerako ordua autobusean bertan zehaztuko dute. Informazio gehiago behar izanez gero, 943 741 332 telefonora deitu daiteke.

‘Gerrako Umeen’ ama

Euskal Herriko 32.000 umek gurasoak laga eta beste herrialde batzuetara itsasoz joan behar izan zuten 1937an, arriskutik kanpo egoteko, Espainiako Gerra Zibilaren gordinkeria zela eta. *Habana* baporeak ia 4.000 ume eraman zituen Ingalaterrara; eurekin, 96 maistra, 118 laguntzaile, hamabost apaiz eta sendagile bi. Maistra boluntario haietako bat elgoibartarra zen, Ana Maria Gonzalez Garate. 72 urte geroago, haren alaba, Carmen Kilner, Euskal Herrian izan da *Gerrako Umeen* berri emateko eta Ingalaterrara joandakoen memoria gogora ekartzeko.

Oier Narbaiza



Ana Mariak 30 bat umeren ardura izan zuen Ingalaterrako kanpamenduan.

Lehengusu-lehengusinak eta lagunak Elgoibarren dauzka Carmen Kilnerrek, bizi guztia Ingalaterran eman arren. Hala ere, sari etortzen da, jaietan-eta batez ere. Orain dela egun gutxi Ingalaterrara joandako umeen memoria gogora ekartzeko izan da gurean, Basque Children of '37 elkartean diharduelako. Han-hemenka hitzaldiak ematen ibili da. Izan ere, Carmenen ama, Ana Maria Gonzalez Garate, 1937ko maiatzean boluntaria joan zen *Habana* baporean, 3.826 umerekin.

Ana Maria Gonzalez Garate erdi elgoibartarra eta erdi donostiarra zen. Gipuzkoako hiriburuan atera zuen maistra titulua, eta Errepublikarekin lerrotutako Fundacion Universitaria Escolar taldearen sortzailea izan zen. Donostiatik Elgoibarrera etorri zen, familiarengana, 1936an, Donostia falangisten menpe gelditzean. Gero, Elgoibartik Bilbo

Inglaterrako jendartearen elkartasuna

Sobietar Batasunak, Mexikok, Belgikak eta Frantziak umeak hartu zituzten. Erresuma Batuak, berriz, ez zuen asmorik, ez eskuhartzeko erabakia hartua zuen eta. Stephenson Bilboko kontsulak errefuxiatuei laguntzeko exigitu zuen, eta Ingalaterrako jendarteak elkartasun handia erakutsi zuen.

The Times-eko George Steer kazetaria Gernikako bonbardaketaren lekuko izan zen, eta berak idatzitako erreportajeak elkartasuna areagotu zuen Ingalaterran. Gobernuari presioa egin zion jendeak umeak hara eramateko, arrazoi humanitarioak zirela eta. Azkenean, Gobernuak onartu zuen umeak hartzea, baldintza batzurekin: bakar-bakarrik umeak hartu-

ko zituzten, eta Euskal Umeen Batzordeak astean hamar txelin ziurtatu beharko zituen ume bakoitzarentzat. Taldeak diru publikorik gabe finantzatu beharko zuen guztia. Cambridgeko Unibertsitateko Leah Manning hezitzaileak lan handia egin zuen eta gogor presionatu zuen Londresko Gobernua: hasieran 2.000 ume hartzeko baimena izan arren, kopurua bikoiztea lortu zuen.

Baina *Habana* ontzi zaharrak 800 plaza baino ez zituen. Han pilatu zituzten 3.826 ume ikaratu eta gosetu. Habanan sartu eta bapo jan zuten. Itsaso zakarraren ondorioz, umeak botaka hasi ziren. Bidaiak iraun artean, kiratsa ikaragarria izan zen.





Carmen Kilner, Ana Mariaren alaba, Elgoibarren egon berri da, Gerrako Umeen memoria gurtutzen.

aldera jo zuen, gerratik ihesi. Eusko Jaurlaritzak eskola-ume guztiak ebakatu nahi izan zituen, eta Ana Mariak bere burua aurkeztu zuen boluntario joateko.

Gerran ebakutatutako 70.000 umeetatik, erdia inguru Euskal Herrikoak ziren, Bilbotik 32.000 atera zituztelako. "Pentsatu zein zen gurasoen etsipena, umeak horrela bidaltzeko", argitu du Carmen Kilnerrek. Azken batean, Bilbon zeudenak gorriak ikusten ari ziren, eta janari eskasia demasa zen.

Gurasoen falta

Ingalaterrara joandako ume gehienak kanpamenduetan egon ziren. Bostetik hamasei bat urtera artekoak ziren, eta euren gurasoen falta sentitzen zuten. Ana Mariari "ama deitzen zioten", adierazi du Carmen Kilnerrek. Bere ardurapean zituen 30 bat ume. Irakasle lanak ez ezik, edozein amaren lanak ere egin behar zituen denentzako.

Mantenuerako dirua ematen zuten familiei bisita egiten zieten umeek noizean behin. Horrez gain, hainbat irteera ere egiten zituzten. Hala ere, gabezia nabarmenak zituzten.

Bilbo erori ondoren hasi ziren umeak bueltatzen, baina batzuk han gelditu ziren. Bigarren Mundu Gerra hasi zenerako, 400dik gora Ingalaterran zeuden, gurasoak preso hartu zituztelako edota hil egin zizkietelako. Gerra amaitzean, Francok bereak eta bi egin zituen umeak berriz itzularazteko, beste herrialdeak presionatuz, nazioartean irudi txarra ematen ziolako hainbeste ume munduan sakabanatuta izateak. Ingalaterrarekin jai zuen, baina, hango Gobernuak ez zuen-eta umeak hartzeko dirurik jarri. Horrexegatik gelditu ziren han batzuk.

Ana Maria ezin itzulirik gelditu zen, bere joera politikoa zelareta. Gainera, hango jendartera egin zen. Senarra izango zena han ezagutuko zuen geroago.

Umeen arteko hartu-emana oso estua izan zen, bai egonaldian, bai gero ere. Kasu askotan, biziarteko harremanak sortu ziren. Bizirik gelditzen direnak urtero elkartzen dira, maiatzean. Gaur egun ehun bat gelditzen dira. Orain urte bi hil arte, Ana Mariak "umeek" idatzitako gutun ugari jaso zituen: batzuek ez zioten "ama" esateari laga.

MEMORIA HISTORIKOA

Carmen Kilner sarri egon izan da Euskal Herrian. Azken bisitan, Ingalaterrara joandako *Gerrako Umeei* buruzko xehetasunak argitzen ibili da. Ingalaterrako Basque Children of '37 elkarterekin ume horien historia kontatzeko hainbat hitzaldi eman ditu ikastetxe batzutan, tartean Elgoibarren. Historialariek historiaren zati gordin hori ahaztu egin dutela uste du.



Ingalaterrako kanpamenduetan gabezia handiak egon arren, umeentzako hainbat ekintza prestatzen zituzten.

Maistra titulua atera eta boluntaria joan zen Ana Maria, Ingalaterrara ebakutatutako 4.000 umerekin

Gure berbak

Aditz trinkuak: Aditz trinkoen adibidiak

Hona, pasa dan astekuari segittuz, aditz trinkuen adibide gehixago; orain-guan, batez ere iragankorrek edo trantsitibuak dira aditzak.

- ♦ *Hórrek ziran dirua zaukenak.*
- ♦ *Ganauak badaukaguz. Oin ganau gitxiago daukagu.*
- ♦ *Istorixak asko jauka(da)z nik, Jesus, Maria ta Jose!*
- ♦ *Gaztena zuan hori, hamabi urte ero jauka-zen.*
- ♦ *Bueno, nik badauka(da)z bi edo hiru, baiña...*
- ♦ *Takua lodixa eta kolkora. Eta takillan ipiñi, eta hurrengo kalera juten giñanian erun kalera, tabeman amastadia geunkan lekuan...*
- ♦ *Baiña aprobetxatzeko gauza haundirik etxakan. (=ez jaukan)*
- ♦ *Honek keja haundixa jakan.*
- ♦ *Guk erderia dabilgu gehixao.*
- ♦ *Ze lan da(ra)bixe hor?*
- ♦ *Hauraxe zuan hola pixkat jazten zana, eta haretxen gaztetako erropia jabik horrek, nerezako.*
- ♦ *Lehenago han ziharduen langillak soldau jun zittuan asko.*
- ♦ *Nik dakidana dok astuak haruzkuan neka-neka einda juten ziala.*
- ♦ *Kalian etxakixek euskeraz iñok ere.*
- ♦ *Erromerixan, guk ez gendun dantzan asko egitten, ez genkixen da.*
- ♦ *Ni ez naiz gogoratzen noiz etorri ziran, baiña, hamen urte batzuk zaruzazela, Etxezurixa, Lizundia apellidua ...*
- ♦ *Entierro baten izen giñuazen, eta txikito batera sartu nitzuan ni taberna batera, eta han jiharduan, erderaz bera. Bozian ezagutu najuan.*
- ♦ *Izetez, Aranbelzkua nok, baiña hemen jaruaz berrogeta hamaika urte ezkonduta.*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1983

Aste honetako erretratu 1983. urte ingurukoa da. Elgoibarko koadrila honek kiroletarako zaletasun handia zeukan, eta bizikletan edota futboleant aritzeko ohi-tura zeukaten, eta horietako batzuk gaur egun ere kirolari amorratuak dira. Erretratu Zarauzko Koldo Mitxelena ikastolan aterata dago. Gogora ditzagun argazkiko futbolari horien izenak:

Goian, ezkeretik eskumara: Jesus Mari Astigarraga 'Metala', Rafa Ibañez, Jose Luis Soraluze (†), Anton Bergara.

Behean: Iñaki Conde, Jose Alberto Gurrutxaga eta ezezaguna.



ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENeN argitaratzeko erretratu zaharrak baldin badituzu, eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea. Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)

Martxoan...

JAIOTAKOAK



Leire Burunza Gil
Otsailak 27
Iñaki eta Maria Iciar



Oxel Urrusolo Uzuriaga
Martxoak 4
Tomas eta Atsegin



Mikel Crespo de Pablo
Martxoak 7
Oskar eta Naira



Laura Gonzalez Jurado
Martxoak 10
Diego eta Maria Luisa



Julen Rodriguez Torres
Martxoak 14
Sergio eta Susana



Maddi Astorkia Ansola
Martxoak 17
Josu eta Agurtzane



Kepa Mendez Lavado
Martxoak 18
Fernando eta Ainara



Iria Taboada Sarmiento
Martxoak 20
Javier eta Lidia



Lur Bengoetxea Maiora
Martxoak 20
Zigor eta Auritze

Uxue Cabrera Mejias
Martxoak 3 Jose Ramon
eta Clara Isabel

Lur Arriola Ormaetxea
Martxoak 11
Joseba eta Marian

June Mosquera Arenas
Martxoak 18
Joseba eta Maria

Uxue Uzkudun
Cabezudo Martxoak 19
Alberto eta Joana

Maitane Limia Martinez
Martxoak 19 Francisco
Javier eta Ana Isabel

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 744 112** telefonora edo bidalie-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.

HILDAKOAK

- Niceto Ansola Arrieta • **81 urte** • (Martxoak 6)
- Fernando Santas Pato • **97 urte** • (Martxoak 16)
- Mateo Orbea Arriola • **85 urte** • (Martxoak 15)
- Miren Izar Erkiaga Goitiandia • **75 urte** • (Martxoak 19)
- Felix Arriola Arriola • **66 urte** • (Martxoak 2)
- Borja Uzuriaga Mendizabal • **25 urte** • (Martxoak 3)
- Felix Blanco Romero • **80 urte** • (Martxoak 5)
- Pilar Lauz Portillo • **81 urte** • (Martxoak 5)
- Luis Maria Perez de Albeniz • **66 urte** • (Martxoak 5)
- Juan Canales Vallejo • **79 urte** • (Martxoak 20)
- Visitacion Garate Elorza • **83 urte** • (Martxoak 21)
- Tiburcio Aranburu Arrillaga • **82 urte** • (Martxoak 28)

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27

(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56

(Sakelekoa) 635 756 295



VII. URTEURRENA
2002ko apirilaren 5ean hil zen

IÑAKI LARIZ IRIONDO

*Jaungoikoak gorde zaitzala,
Ama Birjiña Maria,
miserikordiazko Ama,
gutziz miragarria,
konfiantza osoarekin
gaude zugana jarriak.*

*Ama Andrea, zuk badakizu
gu nola bizi geraden,
tentazio ta arriskua
besterik ez dago hemen,
zure alboan har gaitzazula
zeruko glorian. Amen.*



Billabonako Soinu Zahar Txapelketako jardunaldian ere maila ona erakutsi dute elgoibartarrek

Bihar, eta etzi jokatuko dituzte hurrengo txapelketak Donostian

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolako dantzariak jo eta ke dabilta Soinu Zahar Txapelketan. Domekan jokatu zuten azken txapelketa Billabonan, eta Elgoibarko zazpi neskak hartu zuten parte. Hurrengo bihar eta etzi jokatuko dute: zapatuan A sailekoak (zazpi-11 urte), eta domekan B sailekoak (11-hamabost urte).

Emaizta onak

Lehenengo Sailean hogeitaz neskak hartu zuten parte, eta honako emaitzak lortu zituzten elgoibartarrek: Leire Urzainki laugarren eta Laire Astigarraga seigarren.

Bigarren sailean, 21ek parte hartu zuten, eta honakoak elgoibartarren



emaitzak: Ane Espilla laugarren postuan sailkatu zen, Nerea Badiola bosgarren, Iraitz Gonzalez seigarren, Nora Korta-

berria bederatzigarren, eta Itziar Aldalurrek hamargarren lekuan amaitu zuen jardunaldia.

Herriko Antzokia bete du Benito Lertxundik




Joan den barixakuan, hilaren 28an, Benito Lertxundi musikariak kontzertua eskaini zuen Elgoibarko Herriko Antzokian. Aurreko urte batzuetan ere etorri izan da oriotarra, eta, beti bezala, oraingoan ere, Antzokia bete egin zuen.

Musika bandak kontzertua eskainiko du domekan

Udal Musika Bandak kalejira egingo du 10:30ean domekan, eta sei pieza eskainiko ditu, Herriko Antzokian, 12:30etik aurrera. Egitaraua honakoa izango da:

- 1.- *Agüero*, pasodoblea (J. Franco).
- 2.- *Caballería Ligera*, obertura (Fran V. Suppe).
- 3.- *Cabaret*, selekzioa (Kander).
- 4.- *Nostalgia*, mazia sinfonikoa (F. Berritta).
- 5.- *Viva Navarra*, jota (J. Larregla).
- 6.- *Fiesta tropicale*, runba, sanba, rock-merengea (V. Lopez).



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar



URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12



Elgoibarko Izarrarentzat 2009 urtea etorkizunera begira jartzeko eta hausnarketarako izango da

Haur eta Gazte Sailean eta hedabideetan plan estrategikoak egingo ditu elkarteak

Astelehenean, Bazkideen Urteko Batzar Orokorra egin zuen Elgoibarko Izarra kultur elkarteak. 2008 urtean egindakoa berrepasatu eta aurrera begira egin beharrekoak azaldu zituzten elkarteko kideek, eta “aurtengo urtea hausnarketarako” izango dela azaldu zuten.

Elkartearen web orria irailan

2009 urtea, batez ere, diagnosiak egiteko, ondorioak ateratzeko, gogoetak egiteko, eta helburuak finkatu eta lan estrategiak markatzeko izango dela erabaki zuen batzarrak. “Elkartearen gaur egungo egoeraren diagnostika egingo dugu, eta egoeraren gaineko ondorioak atera ondoren, hurrengo lau urteetarako helburuak eta lan estrategiak aztertu eta erabaki nahi ditugu”, azaldu zuen elkarteko dinamizatzaile Imanol Larrañagak.

Aurrekontu handiena duten bi proiektuekin hasiko dira: hedabideekin – BARREN astekaria eta *elgoibarren.net*– eta Haur eta Gazteak sailarekin.

Gainera, Elgoibarko Izarraren Komunikazio Plana ere prestatu nahi dute, eta irailan elkartearen web orria martxan jartzeko asmoa ere badute.



Aurrekontuari dagokionez, 816.677 eurokoa izango dela aurreikusten dute. “Krisi garaian egon arren, gastuak eta sarrerak parera ekartzen saiatuko gara”.

Beterriko Bertsolari Txapelketa irabazi du Uxue Alberdi elgoibartarrak Gipuzkoako taldearekin batera



Joan den asteburuan Beterriko II. Bertsolari Txapelketa jokatu zuten Urnietan. Arabako Otsoen –Iñaki Viñaspere, Manex Agirre eta Oihane Perea– eta Gipuzkoako Ahuntzen –Jokin Labayen, Uxue Alberdi elgoibartarra eta Ander Lizarralde– arteko lehia izan zen. Beterriko txapelketa taldeka jokatzen da, eta bertsolari gazteek hartzen dute parte. Lanak amaitutakoan, ikusleek aukeratu zituzten txapeldunak: 38k Gipuzkoako Hontzen alde egin zuten eta 20k Arabako Otsoen alde.

murplastik

- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK

Murplastik S.L. | Urdaitegi 78 | 48100 | 41 | Irujo 23
2014 Donostia | Telefonoa 943 96 45 27 | Faxa 943 47 28 85

Jose Angel Zabala

MAHASTI

Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

Errege Kopako finalerako bi sarrera zotz egingo ditu CD Elgoibarrek

Haundiren gastuei aurre egiteko zozketan beste bi sari ere egongo dira

Haundi Hirugarren mailan egiten ari den denboraldi apartaren ondorioz, *-play-off* kanporaketak jokatzeke postuetan sailkatuta daude, eta, gastuak handitu daitezkeela aurreikusiz, zozketa bat antolatu du CD Elgoibar kirol klubak. Sari nagusia Athleticen eta Bartzelonak maiatzaren 13an Mestallan (Valentzia) jokatuko duten Espainiako Errege Koparako bi sarrera izango da. Jai-alai, Gorbear, King-kong, Kaia eta Iriondo tabernetan eskuratu daitezke zozketako txartelak.

Baina lehen sari horrez gain, bigarren eta hirugarren sariak ere zotz egingo dituzte. Bigarren saria Zuberoa jatetxean bi lagunentzako afaria da; eta hirugarrena, 300 euro.

Haundi, laugarren postuan

Denboraldi biribila egiten ari da



Haundi Hirugarren mailan. Elgoibartarrak sailkapen nagusiko laugarren postuan daude 56 punturekin, Portugalete liderrengandik lau puntura, 31 jardunaldi jokatu eta gero. Falta diren zazpi jardunaldiak jokatu ondoren, lehen lau sailka-

tuek Bigarren B Mailara igotzeko kanporaketak jokatuko dituzte. Une honetan Haundi laugarren postuan sailkatuta badago ere, lehen bost taldeen artean oso alde txikia dago, hortaz, lehia gogorra izango da.

Bederatzi elgoibartar Diego Garciaen omenezko maratoi erdian

Bederatzi antxintxikari elgoibartarrek parte hartu zuten Diego Garciaen Oroimenezko Azkoitia-Azpeitia XVI. Nazioarteko Maratoi Erdian. Partaidetza marka hautsi zuen proban 1.123 lagunek amaitu zuten 21 km. pasatxoko lasterketa, 65 emakumek eta 1.058 gizonek. Nabarmenezkoa da Ainhoa Lendinez elgoibartarrak (argazkian) lortutako 13. postua, 1:32:11 denborari esker. Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiko antxintxikariek hotzari aurre egin behar izan zioten joan den zapatuan Urola bailarako bi herri horien artean egin zen lasterketan. Hala eta guztiz ere, lasterka hasi orduko berotu ziren.



Sailkapena

NESKAK

13. Ainhoa Lendinez 1:32:11

MUTILAK

52. Xabier Bergaretxe 1:15:28
 80. Alberto Gil 1:17:39
 92. Martin Dominguez 1:18:40
 160. Iñigo Salegi 1:21:46
 196. Asier Arrieta 1:22:56
 284. Aitor Osoro 1:26:08
 606. Bruno Guerrero 1:33:43
 720. Zigor Egia 1:36:17

Jaioberrientzako igeriketa ikastaroa

Hiru hilabete eta bi urte arteko haurrentzako igeriketa ikastaroak antolatu ditu Udal Kirol Patronatuak. Izena emateko epea apirilaren 6ra irekita egongo da Olaizaga kiroldegian. Ikastaroaren saioak (12 guztira) zapatu goizetan izango dira, hilaren 18tik aurrera, Olaizaga kiroldegian. Uraren tenperatura 34 gradutan egoten da ikastaro hauetan.

Morkaikok Urbiara irteera antolatu du hilaren 25erako

Morkaiko mendi taldeak beste irteera bat antolatu du: Otzaurtetik Urbiara joango dira, Aratz eta Atxuriko gainetatik pasatuta. Handik Arantzazura jaitsiko dira. Gainera, bideak badauzka *ihes* egiteko hainbat aukera eta beraz, norberak nahi duen gogortasuna eman ahal izango dio bere ibilbideari.

Irteera apirilaren 25ean, zapatuan, izango da, 8:00etan Plaza Handitik. Izena emateko Morkaikoren Errosario Kaleko lokaletik pasatu daiteke.

Alcortak eskubaloia liga irabazi du eta IMHk Euskadiko txapelketa du jokoan

Senior mutilek 20 eta 31 irabazi dute ordiziarren aurka

Txapel-dun izateko nahitaez lortu behar zuen garaipena Alcorta Forging Group eskubaloia taldeak Liga Txapelketako azken jardunaldian, eta senior mutilek ez zuten hutsik egin: 20 eta 31 irabazi zuten Ordiziako Rotula Studio taldearen aurkako partida.

Nagusitasun eta merezimendu osoz irabazi zuen Alcortak azken partida erabakigarria eta, hortaz, txapelketa. Elgoibartarrei lehen postua kentzeko aukera zuen talde bakarrak, Ereintzak, etxetik kanpo jokatu zuen partida irabazi zuen arren, Alcortak lortutako garaipenak eze-rezean laga zuen errenteriarren ahalegina. Gipuzkoako Bigarren mailako txapel-dun berriak, Alcortak, maila bat gorago, Lurraldeko lehen mailan jokatu du datorren denboraldian.

Kadete mailako lau onenen lehia

Kadete mailako Euskadiko Txapelketa jokatu da asteburuan Olaizaga Kiroldegian eta bertan parte hartuko du



IMH taldeak. Lau taldek lortu dute Elgoibarren jokatu den azken faserako sailkapena: IMHk, Errotaberri Ermuak, Zarautzek eta Basaurik.

Gaurtik domekara bitartean elkarren aurka jokatu dute guztiek eta emaitza onenak lortzen dituenarentzat izango da txapela. Euskadiko Txapelketa irabazteko aukeraz gainera, Espainiako Txapelketan aritu ahal izateko txartela ere jokoa izango da. Saria, EAE ordezkatzeko, lehen bi sailkatuek bakarrik eskuratuko dute.

Pilota Egunak frontoia bete du



Joan den zapatuan goizeko 10:30etatik aurrera zuriz jantzitako pilotariz bete zen ikastolako frontoia. 1995ean jaiotakoak zaharrenak eta 2002an jaiotakoak gazteenak, neska-mutilen arteko 16 partida jokatu zituzten. Pilotariak kantxan zeuden bitartean, euren jokoa ikustera eta animuak ematera joandako familia eta lagun ugari batu zen frontoian.

EMAITZAK

FUTBOLA

Amurrio 2 – Elgoibar 0 (Haundi)
Elgoibar 0 – Bergara 3 (1. erreg.)
Zestoa 2 – Elgoibar 1 (Jub.)
Elgoibar 2 – Allerru 0 (Kad.)
Idiazabal 0 – Elgoibar 1 (Inf.)
Ordizia 2 – Elgoibar 3 (Txik.)
Ordizia 2 – Elgoibar 0 (Nesk.)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 5 – Laskorain 5 (Nazional B)

ESKU PILOTA

Debarroko txapelketa

Lagunak 22 – Bergara 15 (Jub.)
Aretxabaleta 5 – Lagunak 22 (Jub.)

SASKIBALOAIA

Anbolo 25 – Mundaiz 13 (Kad.)
Jabi Jatetxea 57 – Errobide Irun 54 (Nag.)

ESKUBALOAIA

Cometel Elg. 22 – Ereintza 12 (Jub. nesk.)
IMH Elg. 30 – Aloña Mendi 9 (Kad. mut.)
Rotula Studio 20 – Alkorta Elg. 31 (Sen. mut.)
Pneumax Elg. 30 – Bergara 35 (Kad. mut.)
Ikus Elg. 16 – Aiala 21 (Kad. nesk.)
Ereintza 10 – Aterpe Elg. 21 (Inf. nesk.)
Leizaran 16 – Lili Elg. 20 (Inf. nesk.)
Bankoa Elg. 17 – Arrate 29 (Inf. mut.)

AGENDA

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 4

11:30 Aterpe Elgo. – Udarregi (Inf. nesk.)
15:45 Lili Elgo. – Aiala (Inf. nesk.)

Euskadiko kadete mailako finalak

Barixakua, 3

18:30 Errotaberri Ermua – Basauri
20:30 IMH Elgo. – Zarautz

Zapatua, 4

17:30 IMH Elgo. – Basauri
19:30 Errotaberri Ermua – Zarautz

Domekia, 5

10:30 Zarautz – Basauri
12:00 IMH Elgo. – Errotaberri Ermua

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 4

10:30 Elgoibar – Aretxabaleta (Txik.)
12:15 Elgoibar – Trintxerpe (Inf.)

16:30 Elgoibar – Ordizia (Haundi)
18:30 Elgoibar – Luberrri (Inf. nesk.)

Domekia, 5

16:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Nesk.)

IDARRAGA SARIAK

1. Larrea (67 puntu)
2. Hodei (64 puntu)
3. Muxi (51 puntu)

LANA

ESKAERA

• Emakume euskalduna, pertsona nagusi, hezindu eta gaixoak zaintzeko prest.

☎ 615 762 742 (Josefina)

• Emakumea, etxeko lanak, garbiketa eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 646 235 195 / 636 362 251

• Bi emakume, garbitzaile makina bereziki alfonbra, bulego, etxeak, etab. garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe.

☎ 638 944 604 (Irene) / 695 708 271 (Itsaso)

• Etxeko lanetarako emakumea eskaintzen da (nahiago arratsaldez)

☎ 943 74 32 51

• Emakume nagusiak edo haurrak zaintzeko prest, edo garbiketa lanak egiteko prest. Egunez zein gauzez.

☎ 671 476 869

• Neska gaztea, zerbitzari lanetan edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziarekin. ☎ 660 441 505

• Emakumea, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.

☎ 639020 180

• Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 617 958 400

• Mutila galdaragintza edo soldaketa lanak edota garbiketa eta pintura lanetarako prest. ☎ 617 958 400

• Emakumea lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan. Orduka edo interna.

☎ 678 879 024

• Mutila lanerako prest, igeltsertizan, gidari gisa, komertzioan edota zamallanetan ☎ 660 213 652

ESKAITZA

• Sukaldari laguntzailea behar da.

☎ 943 74 31 96

• Zerbitzaria behar da.

☎ 943 74 16 00

• Elgoibarko kirol instalazioetan, harreran lan egiteko jendea behar da. Euskara eta informatika ezagutzak derrigorrezkoak. Harremanetarako, deitu telefonoz Igeriketa Lantzen enpresako honako zembakira:

☎ 685 755 799

• Ordenagailuak konpontzen ditut, etxetz. Oso prezio onean. ☎ 630 850 390

ETXEBIZITZA

SALGAI

• Etxebizitza salgai Arregitorren, egoera onean. Sukaldea, hiru logela, bi komun, egongela eta ganbara. 225.000 € (aukera ona). ☎ 696 266 982

ALOKAGAI

• Conilen (Cadiz) apartamentua alokagai, 3 logela, terraza, bista onak eta garajea. Erdigunean. Igogailua.

☎ 653 733 457

• Elgoibarren logela bat alokatu nahiko nuke.

☎ 664 118 757

• Benidorm. Apartamendua alokatzen da erdigunean, hondartzatik oso gertu eta egoera onean. Prezio paregabea.

☎ 943 74 06 28

LOKALAK

• Garajea alokagai Mugerza pasealekuan (pista beltza), itxia edo irekia

☎ 943 741 436

MOTORRA

• Hyundai Furgoneta salgai. 7 eserleku. Erremolkerako bola dauka. 130.000 km. Beira tindatuak. 8.000 euro.

☎ 660 027 976

BESTELAKOAK

• Bi hektarea inguruko lursail bat salgai Azkaratetik Azkaira bitartean.

☎ 671 977 171

• Etxeko altzariak, etxetresna elektrikoak, ohe-erropa (izarak, mantak, edredoiak, koltxak), gortinak eta alfombra.

☎ 676 444 171

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero barren.iragarkilaburak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro

OSPAKIZUNAK KINTOAK



1971n jaiotako eta Pedro Muguruza ikastetxean ikasi zutenak berriz elkartu ziren 25 urteren ondoren. "Egun bikaina pasatu genuen! Ea datoren urtean gehiago elkartzen garen!".



• Zorionak, **Almar**, domekan bi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Maddi**, martxoaren 30ean urtebete egin zenuelako. Gurasoen eta ahizpa Erikaren partez.



• Zorionak, **David**, domekan bost urte egingo dituzulako. Familiakoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Xabi**, bihar lau urte egingo dituzulako. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Judith**, bihar zortzi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, bihar hiru urte egingo dituzulako. Mila kilo zorion etxekoen partez, gure pitusinari.



• Zorionak, **Roke**, domekan sei urte egingo dituzulako. Muxuak etxekoen partez.



• Zorionak, **Yune**, asteartean bost urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, gurasoen partez.



• Zorionak, **June**, zazpi urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Einer**, gaur bi urtetxo egin dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, politxa! Kuadrilako zaharrenarentzat, muxu handi bat, beti bezain eskadalosa jarrai dezan!



• Zorionak, **Leirel** Hiru patxo handi gure sorgintxoari etxeko denon partez.



• Zorionak, **Nalaya**, apirilaren 9an bost urte egingo dituzulako. Gurasoen eta anaia Markelen partez.



• **Ane**, mila kilo zorion opa dizkizu zure familiak, martxoaren 31n bi urte egin dituzulako. Muxu handi bat Mikel eta Maddiren partez.



• Zorionak, **Ane eta Irati**, zuen urtebetetze egunetan! Denon partez.




• Zorionak, **Pedro eta Ariana**, martxoaren 25ean zuen eguna izan zelako. Familiakoen, eta bereziki, Alejandroren partez.




• Zorionak, **amama Begoña eta Ainhoa**, apirilaren 7an zuen eguna izango delako. Muxu bana denon partez.



• Zorionak, **Aitor eta Xabier**, sei eta lau urte bete dituzuelako. Muxu handi-handi bat familiakoen partez



• Zorionak, **Anuska eta Lukene**, apirilaren 1ean urtebete egin zenutelako. Aitaxo eta amatxoren partez.



• Zorionak, **hirukote**, hamaika eta hamahiru urte egin dituzuelako. Nalaya eta Markelen partez.



• Zorionak, **Vicente** domekan urteak egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Angelen partez.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARREneko bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

OKINDEGIA

5 domeka **BOLINTXO**
 9 eguena **DOÑA MERCEDES**
 10 barixakua **EIZAGIRRE**
 11 zapatua **FOTERO**
 12 domeka **IBARRENA**
 13 astelehena **BOLINTXO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

3 Etxeberria (S.A)	10 Yudego
4 Fernandez	11 Garitaonaindia
*Goizez Etxeberria (E)	12 Garitaonaindia
5 Fernandez	13 Garitaonaindia
6 Zabaleta	14 Yudego
7 Yudego	15 Zabaleta
8 Etxeberria (E)	16 Etxeberria (E)
9 Yudego	17 Ibañez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
 Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
 Garagarza (MENDARO)
 Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebaren, 9 (SORALUZE)
 Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBAREN.net



3 barixakua

Hitzaldia

19:30 Brigaden aurkezpena

Askapenak eta Gazte Asanbladak antolatuta, brigaden aurkezpena egingo dute. Hitzaldia eta bideo emanaldia izango dira Gaztetxean.

Dantza

22:15 'Axeri boda'

Juan Antonio Urbeltzen dantza ikuskizuna. Herriko Antzokian.

4 zapatua

Tailerria

10:00 Komunikazio tailerra

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Aisialdia

11:30 Udaberri festa

Atxutxiamakak antolatuta, udaberri jaia izango da Plaza Handian.

5 domeka

Korrika 16

8:45 Gasteizerako autobusak

Pesa garraio enpresak autobus zerbitzu berezia jarri du Korrikaren azken jaira joateko. Eibartik irtengo da autobusa, Hotel Arrate paretik. Buelako ordua autobusean bertan jarriko dute.

Irteera

10:00 Indamendira txangoa

Ikastolako guraso taldeak antolatuta, Indamendira joango dira ikasle, irakasle eta gurasoak. Irteera, Ikastolatik.

Musika

12:30 Musika bandaren

kontzertua

Udal Musika bandak kalejira egingo du, eta ondoren, kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.

6 astelehena

Udalekuak

9:30 Abxubtxiki

Atxutxiamakak antolatuta, Aste Santuko negulekuak hasiko dira. Apirilaren 6,7,8,14,15,16 eta 17an izango dira, Herri Eskolan.

Ikastaroa

18:00 Tomu ikastaroa

Lurrik antolatuta, astelehenetik ostegunera, Aita Agirre plazako lokalean. Interesatuak 677 466 344 telefonora deitu ahal dutela.

7 martitzena

Irteera

10:00 Plaiandira txangoa

Atxutxiamakak antolatuta, Plaiandiko txorien behatorkira joango dira LH3tik LH6rako ikasleak, eta ondoren Hondarribiko hondartzara.

14 martitzena

Martxa

17:45 Etxerat-en martxa

Dispertsioaren 20. urteurrena dela-eta, Debarrena eskualdetik egingo den martxa iritsiko da Elgoibarrera. Harrera

Madalako errotondan. Geroago Plaza Handian, lore eskaintza eta irakurketa.

Erakusketa

19:00 Abiadura Handiko Trena

AHTri buruzko erakusketa egongo da ikusgai Kultur Etxean hilaren 28ra arte.

Manifestazioa

19:30 Manifestazioa

Preso politikoaren nazioarteko eguna eta dispertsioaren 20. urteurrena lemapean, manifestazioa Plaza Handian hasita.

15 eguaztena

Irteera

9:00 Cabarcenoko parke naturalera

Atxutxiamakak antolatuta, Cabarcenora joango dira LH3tik LH6rako ikasleak.

Tailerria

17:00 Komunikazio eta genero tailerra

Emakumeentzako komunikazio eta genero tailerra. Apirilaren 20an, 22an, 27an eta 29an izango du jarraipena. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

17 barixakua

Irteera

11:00 Getariara txangoa

Atxutxiamakak antolatuta, Getarira joango dira LH3tik LH6rako ikasleak.

«Revolutionary road»

4, zapatua: 19:00/22:15

5, domeka: 19:00

6, astelehena: 21:30

Estatu Batuak-Erresuma Batua, 2008. Zuz.: Sam Mendes. Akt.: Leonardo DiCaprio, Kate Winslet, Michael Shannon. 119 min. 50eko hamarkadan, Frank eta April

Wheeler bikoteak amets eta itxaropen ugari ditu. Bizilagunen aldean desberdinak direla pentsatzen dute, eta inguratzen dituen gizarte konformistatik aldendu nahi dute.



ASTE SANTUKO MEZAK eta ELIZKIZUNAK

	Hilak 5 Erramo Domeka	Hilak 6 Astelehena	Hilak 7 Martitzena	Hilak 9 Eguen Santua	Hilak 10 Barixaku Santua	Hilak 11 Pazko gaubela	Hilak 12 Pazko Domeka
PARROKIAN	11:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza	19:00 Adiskidetze ospakizunak (euskaraz)	19:00 Adiskidetze ospakizunak (gaztelerez)	10:00 -12:00 Banakako penitentzia 19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurrean otoitza	19:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna	21:00 Pazko gaubela	11:00 Prozesioa eta meza
SANTA KLARAN	10:00 Bedeinkazioa eta meza			17:00 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurrean otoitza	9:00 Irakurgaien ordua 11:30 Gurutz bidea 17:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna	21:30 Pazko gaubela	10:00 Meza
MADALAN	8:30 Bedeinkazioa eta meza				10:30 Gurutz bidea		8:30 Meza
SAN LORENTZON	10:30 Bedeinkazioa eta meza						11:30 Meza
SAN ANTOLIN	11:30 Bedeinkazioa eta hitzaren liturgia.						11:30 Hitzaren liturgia
SAN PEDRO	10:30 Bedeinkazioa eta hitzaren liturgia.						10:30 Hitzaren liturgia
SAN MIGEL	11:30 Bedeinkazioa eta hitzaren liturgia.						11:30 Hitzaren liturgia

«El truco del manco»

9, eguena: 19:00
10, barixakua: 22:15

«La duda»

11, zapatua: 19:00/22:15
12, domeka: 19:00
13, astelehena: 21:30

«Barriola, San Adriango azeria»

11, domeka: 16:30

OHARRA

Aste Santua dela-eta, datorren astean ez dugu **BARREN**ik kaleratuko eta gure erredakzioa itxita egongo da. Apirilaren 14an itzuliko gara lanera, eta hurrengo alea hilaren 17an jasoko duzue.

txatxaran

Gazte Asanbladako kideak

eta **Sandra Gonzalez**

Julen Salaberria



Julen Salaberria eta Sandra Gonzalez Elgoibarko Gazte Asanbladako kideak dira. Herriko gazteek zer nolako gaztetxea eta Gazte Asanblada nahi duten jakin nahi du asanbladak berak, eta horretarako, buzoiak jarri dituzte herriko hainbat tokitan. Gazteek euren proposamenak buzo horietan sartu besterik ez dute.

“Denok gara desberdinak baina denon hitzak berdin balio du”

Zein eratako jendea biltzen da gaur egun Gazte Asanbladan?

Denetik pixka bat. Generazio berria sartu da oraintxe, eta oso zaila da definitzea zelakoak garen, denok oso ezberdinak garelako. Baina komunean daukagun gauzetako bat da autogestio bitartez funtzionatzen dugula eta asanblada egiten dugula. Denon iritziak, denon hitzak, berdin balio du. Gure helburua Elgoibarko gazte gehienak Gazte Asanbladan batzea da. Horretarako hainbat kanpaina egingo ditugu: bat, oraintxe martxan daukaguna.

Postontzietan jaso dituzuen proposamenek zer diote?

Oraindik ez ditugu jaso proposamenak. Kanpainak luze iraungo du, eta amaitu arte ez ditugu jaso nahi. Baina badakigu proposamen batzuk jaso ditugula, buzoi batzuetan orriak ikusi ditugulako. Bestalde, herritarrak anima-

tu nahi ditugu euren proposamenak idaztera.

Zelakoa izan beharko luke Gaztetxeak?

Gaztetxea herritik gertu egotea oso garrantzitsua izango litzateke: azkenean, jende gaztea kalean dago, eta Gaztetxeraino joatea kostatzen da. Eta Gazte Asanblada mentalitate zabalekoa eta partehartzailea izatea nahiko gertuko: herriak ematen ez diguna aurrera eramateko gune bat, gune askea, eta gizarte kontsumista honetatik kanpo; herriko gazteek euren arazoei aurre egiteko lekua, inolako mugarik gabekoa eta pertsona era anitzekoa. Azkenik, amaitzeko, norberak bere baliabide, amets eta nahiak asetzeko tokia.

Gazteek nahiago dituzte lokalak?

Gaztetxea eta lokalak bateragarriak direla usate dugu. Izan ere, Gazte Asanbladako ia gehienok lokalak ditugu. Lokalean koadrila-koak batzen dira, eta Gaztetxean gainerako

gazteekin. Ez dago bien artean aukeratu beharrik.

Gazte mugimendurik badago herrian?

Jende desberdin asko dago, eta, lehen esan bezala, jende berri asko, gainera. Gauza asko egiteko gogo handia daukagu, eta denok egiten ditugu gauzak. Gazte Asanblada guztiona da, eta hainbat koadrila gaude; baita herriko hainbat eragile ere.

Zer eskaintzen dio asanbladak herriari?

Hainbat aukera eskaintzen ditu: harremanak finkatzea, herriko gazteek elkar ezagutzea, pentsamolde ezberdinak ezagutzea eta zure ikuspuntua zabaltzeko gunea. Balore batzuk jasotzeko tokia da.

Eta herriak Gazte Asanbladari?

Herriak eskaintzen digun gauzarik inportanteena gazteak dira. Eurekin egon ahal izatea; horrek Gazte Asanbladari aniztasuna ematen dio.



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)
San Bartolome, 25

Tel: 943 744 031

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan:

20:00-21:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel.: 943 531 953

669 565 745

Goiz eta arratsaldez .

Jausoro, 6 behea

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaille linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.) San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

HORTZ KLINIKAK

irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com

www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre enparantza, 5 behea

Tel: 943 530 053

lekueder@infomed.es

Beltia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea

Tel: 943 531 869

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30

15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriera egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Ordutegia:

9:30-13:30

15:30-19:30





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

García

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Lehoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza,
berogailua,
eguzki energia,
gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioa
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta
erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Elbar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako
tindatutako
kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

Desigual

San Inazio, 5 behea
☎ 943 748 925
☎ 677 846 069
Faxa: 943 531 502
pinturasdesigual@hotmail.es



Lorezaintza

Pagoa Ioradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307

